

ENPRESAREN AURKEZPENA

Gure enpresa Airbnb-ren ereduan oinarrituta dago, hau da, ekonomia partekatuko plataforma digital bat da. Lehenik eta behin, azaldu behar da zer den Airbnb: bidaiariak etxeak edo gelak alokatzeko erabiltzen duten plataforma bat da.

Guk ideia hori garajeen alokairura moldatu dugu. Gure enpresaren izena UndergroundBnb da, garaje asko lur azpian daudelako. Helburua da erabiltzen ez diren garaje pribatuak aprobetxatzea eta aparkalekua behar duten pertsonari eskaintzea.

Zerbitzua hobetzeko, mugikortasunarekin lotutako aplikazioekin lan egingo dugu, adibidez Waze, Google Maps edo aparkaleku-appekin, erabiltzaileek garajeak erraz aurkitu ahal izateko. Gainera, auto elektrikoentzako kargagailuak dituzten enprekin ere elkarlanean arituko gara, hala nola Wallbox edo Woltio-rekin, zerbitzu gehigarria.

UndergroundBnb plataforma digital bat da, garajeen jabeak eta aparkalekua bilatzen duten pertsonak lotzen dituena. Horrela, erabiltzaileek azkar eta erraz aurki dezakete non aparkatu, eta jabeek diru-sarrera osagarriak lortzen dituzte.

Proiektu honek hirietako eta herrietako trafikoa murrizten laguntzen du, autoek denbora gutxiago ematen dutelako aparkalekua bilatzen. Horrez gain, kutsadura gutxitzen laguntzen du eta hirien antolaketa hobetzen du. Laburbilduz, UndergroundBnb ideia erabilgarria da, bai erabiltzaileentzat bai garajeen jabeentzat.